



## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Haur, nerabe eta gazteen babesaren (HNG) **kirol-erakundeentzat betebeharra izan behar duen jarduera-eremua da**, Adingabeen Eskubideei buruzko Hitzarmenak eta onartu berri den Haur eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrian Babesteko Lege Organikoak (LOPIVI) diktatzen duten moduan. **ORDIZIA KIROL ELKARTEAN** uste dugu gure eguneroko lanean ikusarazi eta aurre egin behar diogun funtsezko erronka dela.

Gure **entitatearentzat indarkeria** da “pertsona-talde, erakunde edo instituzio baten egintza edo utzikeriaren ondorioz sortutako edozein egoera, zeinak HNGei eragiten baitie. Egoera horretan botere-desoreka argi eta nabarmena dago portaera burutzen duenaren eta pairatzen duenaren artean. Indarkeria hainbat adierazpenetan gerta daiteke: fisiko, psikologiko, sexual, emozional nahiz instituzionala, eta indarkeria sufritzen duten adingabeengan eragin negatiboa dauka”.

Kontuan izanda eguneroko lanean **gatzakak eta indarkeria egoerak sor daitezkeela**:

- Gure jardueretan parte hartzen duten HNG guztien **ongizatea bermatzeko** ahalegina egin nahi dugu.
- Gure ustez, **garapen fisiko, emozional eta psikologikorako espazio osasuntsu eta seguru bat** eduki behar dute.
- Teknikari, boluntario, familien eta abarren **tratu onean** sinesten dugu, adingabeen harremanekiko ezinbesteko elementu gisa.

Erakunde gisa gai honetan dugun **konpromisoa** oso argia da, eta **haurrak babesteko politika integral** bat eratzean gauzatzen da. Politika horren edukiak markatuko ditu gure erakundeak haur, nerabe eta gazteak babestearen arloko alderdi garrantzitsu guztiak.

Gure apustua da politika hori gure kirolarien kirol-jarduera inguratzen duten pertsona guztiek ezagut, zabal eta errespetatu dezaten, erakundearen organigraman duten posizioa eta eginkizunak alde batera. Era berean politika sozializatua izango da gure erakundeko bazkide, beste erakunde eta hornitzaileen artean, ezagutua eta, era berean, errespetatua izan dadin.

Haur, nerabe eta gazteen babeserako gure entitatearen politika **honako printzipio hauetan oinarritzen da**:

- Adingabeen ongizatea.
- Haur, nerabe eta gazteen eskubideen errespetua.
- Adingabearen gorenko interesa eta legezko arauak betetzea.
- Adingabeen parte hartzea Klubaren baitan eragiten dieten gaietan.



Era berean, gure eguneroko lanerako erreferentziatzat, haurren babeserako tresna nagusi gisa, *Haurren Eskubideen Konbentzioa* hartzen dugu, baita duela gutxi onartutako Babesteko Legea, LOPIVI, eta Keeping Children Safe garatutako haurren babeserako nazioarteko estandarrak: politika, langileak, prozedurak eta kontu emateak.

**Babes-politika ezinbesteko elementua da haurrak babesteko kultura sortuko duen prozesu instituzionala sustatzeko**, hainbat arlotan eta hainbat elementurekin. **ORDIZIA KIROL ELKARTEA**ren babes-politikaren funtsezko helburuak honako hauek dira:

- Gure entitatearen lan-elementu guztiak aztertzea adingabeentzako balizko arrisku nahiz haien babesaren ikuspegitik.
- Adingabeentzako arriskuak prebenitu eta arintzeko hainbat ekimen edukitzea.
- Gure entitatearen jardueretan parte hartzen duten profesional, boluntario eta heldu guztiak haur, nerabe eta gazteen babesean trebatuta daudela bermatzea.
- Gure entitateko adingabeen prestakuntza bermatzea indarkeriak prebenitu eta detektatzeko, baita haien komunikatzeko ere, eta dituzten Eskubideak sustatzea.
- Adingabeen balizko babes-gabezia egoeren aurrean ekiteko prozedurak eta protokoloak zehaztea.
- Neurgailu egokiak izatea haur, nerabe eta gazteen babeserako ezarritako helburuen jarraipena egiteko.

Gure entitateak, adierazpen honen bitartez, lan egiten dugun haur, nerabe eta gazteen ongizatearekin duen konpromiso etiko eta instituzionala adierazten du, haien oinarrizko eskubideak bermatzeko prozesu erabaki batean lehen urratsa emanez.

Ordizian, 2023ko urriaren 23an



Imanol Telleria  
Ordizia K.E.ko lehendakaria



## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

La protección de niños, niñas, adolescentes y jóvenes (NNAJ) es un ámbito de actuación que debe suponer **una obligación para las organizaciones deportivas**, tal y como dictan la Convención de los Derechos de las y los menores, así como la recién aprobada Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (LOPVI). En **ORDIZIA KIROL ELKARTEA** consideramos que se trata de un reto fundamental que debemos visibilizar y enfrentar en nuestro trabajo diario.

Para nuestra **entidad**, la **violencia** es “cualquier situación generada por acción u omisión de una persona, grupo de personas, organización o institución sobre NNAJ. En dicha situación existe un claro y evidente desbalance de poder entre quien perpetra y quien recibe la conducta. La violencia puede darse en diferentes manifestaciones: física, psicológica, sexual, emocional, institucional y genera un impacto negativo en las y los menores que lo reciben”.

Teniendo en cuenta que en el trabajo diario **pueden surgir conflictos y situaciones de violencia**:

- Queremos esforzarnos en **garantizar el bienestar** de todos los NNAJ que participan en nuestras actividades.
- Entendemos que deben disponer de **un espacio de desarrollo físico, emocional y psicológico sano y seguro**.
- Creemos en el **buen trato** del personal técnico, voluntariado, familias, etc. como elemento esencial de las relaciones con los y las menores.

**Nuestro compromiso** como institución en esta materia es muy claro y se concreta en la construcción de una **política integral de protección a la infancia**. El contenido de esta política marcará todos los aspectos relevantes en materia de protección a la infancia, adolescencia y juventud de nuestra organización.

Apostamos porque esta política sea **conocida, difundida y respetada** por todas las personas que rodean la práctica deportiva de nuestros y nuestras deportistas, independientemente de su posición en el organigrama de la entidad y de sus funciones. Asimismo, nuestra política será socializada con nuestras organizaciones socias, otras entidades y proveedores para que sea igualmente conocida y respetada.

La política de protección a la infancia, adolescencia y juventud de nuestra entidad está basada en **los siguientes principios**:

- Bienestar de los y las menores.
- Respeto de los derechos de la infancia, adolescencia y juventud.
- Interés superior del menor y de la menor y el cumplimiento de las normativas legales.
- Participación de las y los menores en los temas que les afectan dentro del Club.



Asimismo, tomamos como referencia para nuestro trabajo diario la *Convención sobre los derechos del Niño* como principal instrumento de protección de la infancia, la recién aprobada Ley de Protección, LOPIVI, y las normas internacionales de protección a la infancia elaboradas por Keeping Children Safe: política, personal, procedimientos y rendición de cuentas.

**La política de protección supone un elemento esencial para impulsar un proceso institucional de generación de una cultura de protección a la infancia** en diferentes ámbitos y con varios elementos. Los objetivos fundamentales de la política de protección de **ORDIZIA KIROL ELKARTEA** están centrados en:

- Analizar todos los elementos de trabajo de nuestra entidad desde una perspectiva de posibles riesgos para las y los menores y de su protección.
- Disponer de una serie de acciones de prevención y mitigación de los riesgos para los y las menores.
- Garantizar que todas las personas profesionales, voluntarias y adultas que participan en las actividades de nuestra entidad estén formados en protección de la infancia, adolescencia y juventud.
- Garantizar la formación a las y los menores de nuestra entidad en materia de prevención y detección de las violencias, así como su comunicación y formentar los Derechos que les asisten.
- Detallar los procedimientos y protocolos para actuar en caso de posibles situaciones de desprotección de las y los menores.
- Disponer de indicadores adecuados para dar seguimiento a los objetivos marcados para la protección de la infancia, adolescencia y juventud.

Nuestra entidad mediante la presente declaración plasma su compromiso ético e institucional con el bienestar de la infancia, adolescencia y juventud con la que trabajamos, dando el primer paso dentro de un proceso decidido por garantizar sus derechos fundamentales.

Ordizia, 23 de octubre de 2023



Imanol Telleria  
Ordizia K.E.ko lehendakaria